



2013-2014 Euskara eskolak. Baldintzak eta irizpideak

Lemoako Udalak herriari eskaintzen dizkion euskara eskoletarako honakoak beharrezko ikusi ditugu: batetik, bertan parte hartuko dutenek baldintza batzuk betetzea; eta bestetik, taldeak osatzean irizpide batzuk zehaztea.

Ikasleek bete beharreko baldintzak:

- Lemoan erroldaturik egotea.
- Ikastaroaren %20 ordaintzea.
- Mailaketa proba egitea.
- Eskoletako asistentzia %80koa izatea eta ikasturte amaierako ebaluazioan aprobetxamendu egokia izatea. Hilabetez inolako justifikazio barik ez bada eskoletara joaten baja emango zaio.
- Urte amaieran ez badu %80ko asistentzia bete, edo inolako justifikazioa barik baja eman behar izan bazaio, hurrengo bi urteetan ezin izango du Udalak eskaintzen dituen euskara eskoletan izena eman.

Honako irizpideen arabera onartu eta osatuko dira taldeak:

- Dagokion matrikularen zatia ordaintzea.
- Aurreko urtean eskoletan egon izana.
- Euskarako behe mailako urratsak lehenetsiko dira.
- Ikaslegaiak duen mailako eskola taldea sortzeko gutxieneko ikasle kopurua egotea.
- Mailaketa proba egitea.
- Taldeak adostutako ordutegian eskoletara joan ahal izatea (egun guztietan).
- Euskara eskoletarako 35 ikaslerentzako lekua dago.
- Udalak bere gain har ditzakeen matrikula eskaera gehiago izanez gero, zozketa egingo da baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen artean.

Itxaron-zerrendan interesaturik geratu bada, honakoa egingo da:

- Itxaron-zerrendan dagoela jakinarazi.
- Taldeak itxi baino lehen baten batean sartzeko aukera egongo balitz, mailaketa proba egin beharko luke eta, talde horien maila izan beharko dute eta ordutegi horietara moldatu beharko da.
- Inguruko herrietako eskaintzaren informazioa emango zaie.